

## "BELDURREZKO MIKROIPUINEN ETA MARRAZKIEN III. LEHIAKETA"

### 1. Parte-hartzaileak:

Eguesibarren erroldatutako 3 eta 13 urte bitarteko haurrek parte hartzen ahalko dute lehiaketan.

Bi kategoria ezarri dira:

- a) 3 eta 7 urte bitarteko haurrentzat marraztutako ipuinak
- b) 8 eta 13 urte bitarteko haurrentzat gaztelaniaz edo euskaraz idatzitako edo marraztutako ipuinak.

### 2. Narrazio laburraren eta marrazkiaren ezaugarriak:

- Gaia beldurra, misterioa, suspensea edo antzekoa izanen da.
- Aurkeztutako lanak originalak eta argitaratu gabeak izanen dira.
- Parte-hartzaile bakoitzak lan bakarra aurkezten ahal izanen du.
- Materiala: teknika guztiz librea izanen da, akuarelak, argizariak, errotulagailuak, birziklatutako materialak ... erabil daitezke.
- Partaideek izena, helbidea eta telefono zenbakia adieraziko dituzte.
- Ipuin idatzien edo marraztutako ipuinen gehienezko luzera A4 orriko alde bat da.

### 3. Aurkezteko modua eta epea:

Lehiaketan parte hartzeko, lana Olatz edo Sarrigurengo liburutegian aurkeztean ahal izanen da 15:00etatik 20:00etara edo posta elektronikoz igorri daiteke helbide honetara: biblioteca-liburutegiaolaz@egues.es azaroaren 3a baino lehen.

Jatorrizko narrazioa bi artxibotan aurkeztu beharko da:

- Bertan aurkeztean bada: batean ipuinaren testua eta izenburua egonen dira, egilearen goitizenaz sinaturik, eta bigarrean gutun-azal itxian sartuko da, bertan goitizena idatzirik. Bigarren horren barnean egilearen datu pertsonalak jarriko dira: izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoaren helbide balioduna.
- Posta elektronikoaren bidez bidaltzen bada: bi artxibo erantsi beharko dira; Lehenengoak "ipuinaren izenburua eta egileak aukeratutako goitizena" izanen du izen, eta testua izanen du., eta bigarrenaren izenburua egilearen goitizena izanen da, eta bertan egilearen datu pertsonalak egonen dira.

### 4. Epaimahaia:

Epaimahaia Kultura eta Euskara zinegotziak, Kultura koordinatzaileak eta Liburutegi zerbitzuko langileek edo hauek eskuordetzen dituzten pertsonak osatuko dute.

Epaimahaiaren epaia apalaezina izanen da. Epaimahaiak beretzat gordetzen du lehiaketa hutsik uzteko eskubidea, baldin eta, bere ustez, aurkeztutako lanek merezimendu nahikorik ez badute edo oinarri hauetan ezarritako baldintzetara egokitzen ez badira. Epaimahaiak beretzat gordetzen du oinarri hauetan aurreikusi ez den edozein gorabehera ebazteko ahalmena.

### 5. Premios:

Ibarreko "Eguzki" paperdendan eta "La Valeta" liburudendan kontsumitzeko 60 eta 30 euroko txartelak. Lehiaketaren irabazleak Udal webgunean eta sare sozialetan argitaratuko dira @Click\_Eguesibar bidez.

#### **6.- Baldintza orokorrak:**

- Eguesibarko udalak eskubidea izanen du parte hartzeko baldintzak betetzen ez dituzten persona oro kanporatzeko, bai eta lehiaketa behar bezala erabiltzen ez dutenak ere.
- Debekaturik dago parte-hartzaileek elementu pornografikoak, sexualak eta desagokiak erabiltzea, baldin eta pertsonaren irudia edota ohorea urratzen badituzte.

#### **7.- Batu pertsonalen babesa:**

Parte-hartzaileek baimena ematen dute beren datu pertsonalak Eguesibarko Udalaren fitxategi batean sartzeko. Datu horiek helburu hauetarako erabiliko dira soilik txapelketa kudeatzeko, irabazleekin harremanetan sartzeko eta lehiaketako beste edozein gai lantzeko.

Parte-hartzaileek bermatu eta egiaztatzen dute bere informazio pertsonala egiazkoa, zehatza, indarrekoa eta bentakoa dela.

Datuen titularrak eskubidea izanen du datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta deuseztatzeko. Horretarako, [biblioteca-liburutegiaolaz@egues.es](mailto:biblioteca-liburutegiaolaz@egues.es) helbidera idatzi beharko du, bere NANaren kopia edo identifikazio dokumnetua erantsirik.

#### **8.- Eskubideen titulartasuna:**

Saria behin onarturik, irabazleek obrak ustiatzeko eskudie guztiak emanen dizkiote Eguesibarko Udalari, eta, zehazki, obra horiek erreproduzitzeko, zabaltzeko eta jendaurrean jartzeko eskubidea. Izan era, hori guztia gaur egungo zabalkunde oro erabiliz egiten ahalko du. Udalak, besteak beste: material grafikoak, ikus-entzunezkoak, publizitate alorreko baliabideak, Internet eta xede komertzialik ez duten gizarte sareak. Nolanahi ere, obran egilearen izena agertuko da.

#### **9.- Beste arau batzuk:**

Lehiaketa hauetan parte hartu nahi izanez gero, parte-hartzaile gustiek onartu beharko dituzte oinarri hauek, bai eta lehiaketatik atera litezkeen gai ororen gainean ebatzitakoa ere. Izan ere, oinarriak onartu ezean, parte-hartzailea lehiaketatik kanpo geldituko da eta, horren

ondorioz, Eguesibarko udalak es du persona horrekin lehenago hartutako betebeharririk ere bete beharko.

Egusibarko Udalak eskubidea izanen du beti edozein unetan lehiaketaren sisteman edo anolakuntzan nahi beste aldaketa Egiteko. Era berean, hasi baino lehen bertan behera uzten ahalko du lehiaketa, baldin eta bidezko arrazoi batengatik halakorik erabakitzen badu, eta ez du horregatik inolako erantzukizunik izanen. Halere, aldaketa horiek webgunetik eta beste komunikabide batzuetatik iragarriko dira. Ahal den guztia egingen da aldaketa horiek parte-hartzaileei kalterik ez Egiteko eta parte-hartzaileen artean aukera desberdintasunik ez sortzeko.